

lanak. *Funny Animals* bilduman argitaratu zuen. Ordurako, animalia judu eta naziak ageri ziren binetetan, baina marrazkera aski diferentea zen ondotik plazaratuko ziren komiki atalen aldean. «Primitiboagoak ziren. Askoz gehiago nabaritzen zen animaliak zirela», zehaztu du Gabiriak. Azken emaitzan, ez da antzematen ilerik, eta aurpegiak ertz zuzenekoak dira kasik. Inoiz, egileak iradoki du pertsonaiek sagu formako maskarak daramatzatela, eta pertsonak direla atzean.



Art Spiegelmanen lanak eskema asko apurtu zituen, eta uste dut garai hartan ez zela erabat ulertu»

«Egileak aitortu zuen 'Maus'-en bihotza haren aita Vladeken hizkera dela; ez Auschwitz, ezta gerra ere»

Julen Gabiria
Itzultzailea

Lehenbiziko saiakera horren ondotik, Spiegelmanek zatika argitaratu zuen *Maus*, 1980an hasita, *Raw* aldizkarian. Gero, zatika ematen ari zena bilduma batean jasotzea erabaki zuen. Liburuak bakarrean ematea zen asmoa. Azkenean, baina, bitan egin zuen.

Izan ere, presak barrena harraipatuta, hasieran aurreikusitako lehenago kaleratu nahi izan zuen lana Spiegelmanek. Aitortu duenez, 1985ean Steven Spielbergi irakurritako elkarrizketa batek bultzatu zuen hala egitera. Elkarrikerketan hartan, zinemagileak kontatu zuen animaziozko lan bat zuela eskuartean, eta esan zuen antisemitismotik ihesean dabilen sagu judu batzuk zirela protagonista. Spiegelmanek kosta ahalak kosta hartu nahiz zion aurrea film horri. Azkenik, Spielberg 1986ko azaroan estreinatu zuen film hura: *Amerikar ipuina*. Eta urte bereko abuztuaren plazaratu zuten *Maus*-en lehenbiziko parte. Egilearen aita 1982an hil zen, artean komikia bukatu gabe zela.

Aurten, lana osoki argitaratu eta 31 urtera, Tennesseeko (AEB) McMinn konderrian debekatu egin duen ikastetxean *Maus* leitzea. Dena dela, emandako argudioen arabera, zentsurak ez du ikustekorik komikiaren ideologiarekin. Beste arrazoi batzuenatik hartu omen dute erabakia: zortzi birau eta pertsonaia biluzi bat ageri direlako.

Idazketara itzuli

Irati Majuelo

Keinua mugimendu txikia da, azkarra, iragankorra; izan daiteke dardara, izan daiteke begi-kliska, edo oharitu gabe gertatzen den hori. Maiz, hutsalak izaten baitira keinuak, inora ez garamatzaten imintzioak. Hala ere, gorde dezakete zergatirik, istoriorik, interesik. Horiei heldu nahi izan die Elena Olabek bigarren poema liburu honetan, begi hutsez harrapatzen ez diren kodeei.

Zeldak –gorputz honetatik– (2019) lehen lanarekin aurkeztu zuen bere burua idazleak, berezko hizkuntza eta iruditeria proposatuz. Ordutik bigarren liburu honetara, baina, zeldak hautsi dituela dirudi, konpartimentuetan biltzen saiatzen zen errealtate horiei hormak askatu eta, kutxatilarik gabe, begiradak beste norabait jotzen duela orain idazgai bila. Azalera, haragira, adaterara;

intimitateak agertzen dituen keinuetara.

Aldaketa horren ildoan, estiloa arindu duela esan daiteke, esaldiak soildu eta irudiak ukigarriago egin baititu Olabek. Eszena txikiak erabiltzen ditu maiz, argazkiak edota postalak bailiran, bakardadearen keinu bat, bikote



'Keinura itzuli'

Idazlea: Elena Olabe.
Argitaletxea: Susa.

Inauterien esperoan

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Inauterietako pertsonaia berezia da hartza. Zanpantzar, moztorro eta antzekoen artean, hartzairen lekua zein den erakusten zaigu, tradiziozko beste testuekin erraz josten dena, arketipoen erabilera eta funtzioak errespetatzen baitira.

Testu gutxi du, tamaina handiko letrekin emana; nahikoa dena, ekintza errepikatuen egitura baitu. Zehazki, bost abererekin topatzen da hartza, inauterien esentziaz jabetu, eta bertaratzeraren animatzeko.

Istoria idatzizko testuak eskaintzen du, eta ilustrazioek, apaintzeak gain, testuingurua ezartzen dute. Ilustrazio lana teknikoki zabalaz betea antzematen da, bereziki hartzairen irudien eta gainerako animalien irudien

arteko aldean nabarmentzen dena. Dena den, emaitza eraginkorra da, batetik, gaiari ongi atxikitzen zaiolako, eta, bestetik, unibertso grafiko berezia eskaintzen duelako, *art brut* mugimenduko piktorkoan kokatu daitekeena.

Iparraldeko euskara batua dei daitekeen hizkuntza batean idatzita dago, eta txokokeria lexikoak erabiltzen ditu, *iparraldeko* kutsua mantentzen duten hitz bateratzaileen kaltetan: jausi > jauzi, kabala > abere, kokin > bihurri, matahami > kruxpeta, xartal > oti.



'Hartza iratzarri da'

Idazlea eta ilustratzailea: Xantal Barneix Elizagarai. **Argitaletxea:** Ikas.

baten imintzioak bildu eta, zenbaitetan, gai sakon eta zabalago ez hitz egiteko, besteetan, kode-tutako mezu ederrak bidaltzeko. Estiloa arindu baitu, baina poema oro ez da garden, badute beti zerbaite atzean, akaso irakurleak guztiz ulertu ezin dezakeena. Izan ere, argi dago ez direla egia handiak edota gertakizun nabarmenak idazleak azaldu nahi dituenak, eta hala ere, lerro artean suma daiteke lorategi batek edo frikzio batek hartzen duen garrantzia, mito txikien eraikuntza.

Desira eta idazketa dira liburuaren gai nagusiak, edo, hobe esanda, desira eta idazketa bizi-tzarekin txirikordatzen dituzten poemak dira. Hala, maitasunak, bakardadeak, loezinak, hutsunak eta ezezaguna den horrekiko begiradak hartzen dute leku orriotan. Gorputza eta haren keinuak baliatzen ditu Olabek gai horiek lantzeko, eta harreman horretan azaleratzen dira harri-dura, samurtasuna, inozentzia, etsipena. Eta horiekin batera txoritxoak eta urtxintxak, iturriak eta itsasoak, txilintxak eta biolak. Izan, lore usaia dario eta poema bilduma honi.

Alabaina, idazketari buruzko poemek biltzen dituzte lerrorik ederrenak, beharbada. Irakurtzen ari zaren horren idazketa-prozesua begi bistan jartzen baitu Olabek: «Emaitza hau da, ariketa bera ere bai». Bere dudu, pultsio eta galderekin, baina batez ere, idazteak sortzen dion plazera aditzera emanez, irakurle bera plazer horretan murgiltzen du, eta idazlearen gorabeheretara mugiarazten. Agerian geratzen dira, beraz, sorkuntzak dakartzan gatazkak, beti zalan-tzatik idazteak sortzen duen ezinegona, hitz edo tonu egokia aurkitzearen zailtasuna, huts egiteko zein testua osatzeko behar den denbora. Kontrara, ordea, idazlea beti itzultzen da idazketara, sorkuntzaren ekintza berera, erakurpen-jolas ekidine-zinera: «Orduan, idazketa ez bada alkimikoa, (...) zertarako jarraitzen dut hemen/ malbaz betetako lur oraindik emankorreretan, / hitz-lerro artean igurika?».

Azken poeman dion gisara, idazten jarrai dezala Olabek, aintzat hartu beharreko ahotsa baita, zalantzarik gabe.

Arriola marriola

HAUR ETA GAZTE LITERATURA


Imanol Mercero

Idatzizkoan bezain apala izan da ahozkoan aberatsa gure euskararen iraganeko jarduna. Badakigu –zorionekoak gu– une egokian aritu zirelako testigantzak jasotzen folklorista bikainak. Haietako asko penintsulako eta Europako tradizioarekin bat dotoz, gure-gurea den bereizgarri batekin: hizkuntzarekin jolasteko grina, soinu eta hitz-hotsen bidez.

Joxantonio Ormazabalak, *Hitzak jostailu* (Elkar, 1994) liburuaren hitzatzean, lekukotasun hau eskaintzen zuen, Artzadun-bitarteko Juliri jaso omen ziona: «Inimidad, petrikulidad, zirkulu-mirkulu, trikulu-trak. Ekomenario txantxikulete. Iup!». Halako jolasei esker liburu berean idatzi zituen berak *Irrixio mi-*

rrixio pozik dago Inaxio, eta halako jolasei esker etorri ziren *Martin* parat lgerabiderena, *Pupuan* trapua Olasorena edota *Din dilin dan* Añorgarena.

Testuinguru aberats honetan kokatu nahi izan du Jon Suarezek bere lana. Horretarako, haiku erako poemak erabili du, eta boz gora irakurtzeko estetika erabiltu dituzte. Ni zein haurrekin eta nola erabili jakin ezinda sentitzen naiz, instrukzio liburuaren faltan, QRz nahiz idatziz.



'Kiran-karun pek'

Idazlea: Jon Suarez. **Ilustratzailea:** Txakur Gorria: Malen Amenabar eta Mariñe Arboe. **Argitaletxea:** Txalaparta.